

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIKO UDALA

**Behin betiko onespena ematea ludoteka zerbitzua ematearen tasa arautzen duen 7. ordenantza fiskalaren 24. eranskinaren aldatzeari**

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion 7. zerga ordenantzaren 24. eranskina aldatzeari, hain zuzen, ludoteka zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duenari (2026/1235 espediente), eta 2026ko ekainaren 8ko ALHAOn (65. zk.) argitaratu zen. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, hala agintzen baitu Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan, eta jendaurrean jartzen da zerga ordenantzaren testu osoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateratua onesten duenak) 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen hitzez hitz:

#### LUDOTEKA ZERBITZUA EMATEAREN TASA ARAUTZEN DUEN 7. ORDENANTZA FISKALAREN 24. ERANSKINA

##### I. LEGE OINARRIA

###### 1. artikulua

Amurrioko Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 18. eta 21. artikuluetan, uztailaren 13ko 25/1998 Legearen eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, ludoteka zerbitzua emateagatik tasa ezarri eta ordaintzeko eskatzen du.

##### II. ZERGA EGITATEA

###### 2. artikulua

Ordenantza hau Amurrioko udalerrin osoan aplikatuko da.

###### 3. artikulua

Zerga egitatea da ludoteka zerbitzuaren erreserba edo erabilera.

##### III. SUBJEKTU PASIBOA

###### 4. artikulua. Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

Zerbitzuaren erabiltzaile diren haurren legeko ordezkariak ordaindu behar dute tasa, ondorio guztietarako.

## IV. MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

## 5. artikulua. Hobariak

1. Kuoten ehuneko 30eko hobaria izango dute familia ugarietako erabiltzaileek. Matrikula egiten den unean egiaztatuko da halaxe dela. Horretarako, Euskadiko Administrazioen Elkarrengarritasun eta Segurtasun Noduluaren (NISAE) bidez familia ugariaren titulua edo antzekoa izatearen kontsulta egiteko baimena emango zaio udalari. Unean-unean, eta justifikatutako arrazoi batengatik, gaikuntza tituluaren aurkezpen fisikoa eskatu ahal izango da.

2. Ordenantza honetan pertsona fisikoen errentaren arabera hobariak sartzeko xedez, tokiko tributazioan ekitatearen eta gaitasun ekonomikoaren printzipioak txertatze aldera, Kudeaketa, bilketa eta ikuskapenari buruzko 1 zenbakiko ordenantza fiskal orokorraren 21. artikuluko 7., 8. eta 9. apartatuetan jasotako hobariak ezarri dira, bertan zehazten diren baldintzetan.

Artikulu honetan ezarritako hobariak bateraezinak izango dira elkarren artean.

3. Hobaria galtzea ekar dezake apartatu honetan jaso eta hobaria izateko eskubidea ekarri duen baldintzetakoren baten aldaketak.

4. Hobari bat baino gehiago izateko baldintzak betez gero, erabiltzaileari onurarik handiena eragingo diona baino ez da aplikatuko, eta hobarien ehunekoa berdina izanez gero, gehien irauten duena.

## V. KUOTA

## 6. artikulua

Hauek izango dira zerga kuotak:

1. Erabilera libreko ludoteka zerbitzuagatik: ikasturte eta haur bakoitzeko, joan ala ez kontuan hartu gabe.

|                                      | IKASTAROKO TASA, EUROTAN |           |           |           |                          |
|--------------------------------------|--------------------------|-----------|-----------|-----------|--------------------------|
|                                      | 2026-2027                | 2027-2028 | 2028-2029 | 2029-2030 | 2030-2031 ETA HURRENGOAK |
| Erabilera libreko ludoteka-zerbitzua | 26,00                    | 41,00     | 57,00     | 80,00     | 100,00                   |

2. Programatutako jarduera berezietara joateagatik: gehienez ere bi ordu eta erdiko iraupena izango duen saio bakoitzeko.

|                   | IKASTAROKO TASA, EUROTAN |           |           |           |                          |
|-------------------|--------------------------|-----------|-----------|-----------|--------------------------|
|                   | 2026-2027                | 2027-2028 | 2028-2029 | 2029-2030 | 2030-2031 ETA HURRENGOAK |
| Jarduera bereziak | 5,00                     | 5,00      | 7,00      | 8,00      | 8,00                     |

3. Gabonetako eskola oporraldian ludoteka dinamizatuko zerbitzua: txandaka, joan ala ez kontuan hartu gabe.

|           | IKASTAROKO TASA, EUROTAN |           |           |           |                          |
|-----------|--------------------------|-----------|-----------|-----------|--------------------------|
|           | 2026-2027                | 2027-2028 | 2028-2029 | 2029-2030 | 2030-2031 ETA HURRENGOAK |
| Negulekua | 30,00                    | 39,00     | 49,00     | 60,00     | 65,00                    |

4. Aste Santuko eskola oporraldian ludoteka dinamizatuko zerbitzua: txandaka, joan ala ez kontuan hartu gabe.

|               | IKASTAROKO TASA, EUROTAN |           |           |           |                          |
|---------------|--------------------------|-----------|-----------|-----------|--------------------------|
|               | 2026-2027                | 2027-2028 | 2028-2029 | 2029-2030 | 2030-2031 ETA HURRENGOAK |
| Udabarrilekua | 30,00                    | 39,00     | 49,00     | 60,00     | 65,00                    |

5. Udako eskola oporraldian ludoteka dinamizatuko zerbitzua: txandaka, joan ala ez kontuan hartu gabe.

|          | IKASTAROKO TASA, EUROTAN |           |           |           |                          |
|----------|--------------------------|-----------|-----------|-----------|--------------------------|
|          | 2026-2027                | 2027-2028 | 2028-2029 | 2029-2030 | 2030-2031 ETA HURRENGOAK |
| Udalekua | 72,00                    | 78,00     | 82,00     | 85,00     | 85,00                    |

6. Programatu gabeko aisialdiko edo prestakuntzako jarduera bereziak: Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da: jardueraren kostua zati hartzaileen gehieneko kopurua.

Artikulu honetan aipatutako tasen zenbatekoak ezin izango dira murriztu, ordenantza honetan araututako salbuespenetan izan ezik.

## VI. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

### 7. artikulua

Kasuan kasuko zerbitzua edo jarduera inskribatzen edo eskatzen denean sortzen da tasa.

Zergaldia tarifaturako zerbitzu bakoitzaren iraunaldia da.

Zerbitzuaren erabiltzaileak, ofizioz edo erabiltzaileak eskatuta, baja ematen badu, ez da inolako zenbatekorik itzuliko.

Era berean, ez dira murriztuko erabiltzaileak hasi ondoren sartzen diren jarduerengatik tasak.

Nahikoa matrikula ez izateagatik udalak kendutako zerbitzuei dagozkien tasak itzuli egingo dira.

### 8. artikulua

6. artikuluan araututako 2., 4., 5. eta 6. kontzeptuengatik sortutako tarifak osorik edo zati batean deuseztatzeko eskubidea izango dute izena eman duten erabiltzaileek, honako egoera hauetakoren bat gertatzen dela egiaztatzen badute:

- a) Erabiltzailea, haren gurasoetako edozein edo guraso ahala duten pertsonak hiltzea.
- b) Izena eman duen pertsonaren familia unitatearen helbidea aldatzea, inskripzioa egin ondoren.
- c) Guraso edo guraso ahala duen edozein pertsonaren langabezia etortzea gerora.
- d) Inskribaturako pertsona ospitalean izatea.

Aldez aurretik eskatuta, organo eskudunak baliogabetu egingo du, zerbitzua ematen duen zerbitzuak proposatuta eta Ogasun Zerbitzuak txostena egin ondoren, tasak guztiz edo partzialki baliogabetzeko aukera ematen duen egitatea gertatzen den egunetik aurrera zerbitzua erabili ez den egunei dagokien zati alikuota.

## VII. ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

**9. artikulua**

Erabiltzaileek behin betiko inskripzioa egitean sortzen dute ordaintzeko betebeharra.

**10. artikulua**

Udalaren izenean dagoen banku kontuaren zenbakian ordaindu beharko da: Kontu zenbaki hori inskripzioa egindakoan emango da. Eskudirutan edo txartelez ere ordaindu ahal izango da, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), horretarako gaitutako kutxazainean.

## VIII. TASA EZ ORDAINTZEA

**11. artikulua**

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.

Ikastaroa bukatuta, tasak ez ordaintzeagatik zorren bat dutenei ez zaie hurrengo ikasturterako egindako inskripzio eskaera onartuko.

## IX. TASEN KUDEAKETA

**12. artikulua**

Matrikulatutako pertsonak eta, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, haien legezko ordezkariak benetako bizilekua Amurrión badute, lehentasuna izango dute baldintza hori betetzen ez dutenen aurretik, baldin eta eskuragarri dauden plazak betetzen badira.

**13. artikulua**

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**14. artikulua**

Ordenantza honetan arautzen ez denerako, zerbitzuaren indarreko funtzionamendu arauak hartuko dira kontuan.

## X. AZKEN XEDAPENA

Ludoteka zerbitzuagatiko tasa arautzen duen 7. ordenantza fiskalaren 24. eranskina indarrean jarriko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da aldaketa edo baliogabetzea onesten denera arte.

Amurrio, 2026ko uztailaren 28a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*